



BARREN  
TOKIKOM



# Jalgi hadi plazara!

Abenduaren 2an, 19:00etan



XIII. URTEURRENA

## Lorea Etxabe Azkue

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela. Haren oroimenez XIII. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 26, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

**Edur zuritan hazittako  
lore gorrixa ziñan.**

**Urtu eraitten zendun  
inguruko hotza,  
eta bedarra hazi erain.**

**Ez dogu gehixago  
zure berua igarriko,  
baiña hementxe gerauko da  
zure arnasiaz aztarnia,  
botatako sustraixen gaiñian.**

Zure familia eta lagunak



I. URTEURRENA

## Vicente Etxeberria Agote

*"Ballibar"*

2015eko azaroaren 22an hil zen, 86 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 26, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



## Emilio Cid Fernandez

2016ko azaroaren 14an hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## Dolores Leyaristi San Martin

2015eko azaroaren 23an hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 26, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.

**Ama, amama, birramama maittia  
eman diguzun guztiagaittik  
izango zara beti gure artian.**







ARKAITZ IRURETA ARRIETA



IBON SERRANO LASAS



*“Ez jatzu begittantzen  
basatiago izanda bizitzaz  
gehixago disfrutatu  
ahal dala?”*

**A**upa, Ibonse! Ez dozu siñistuko, zure testuak irakurtziaz gain, ulertzen dituan eta gustatzen jakozen ilustratu bat aurkittu dot, eta elgoibartarra da gaiñera! Aste honetako gaixakin hasteko, gaurkuan bizitzako fideosopiaz berba egin nahi dizut.

Konturatzen naiz askotan era akrasikuan jokatzen dogula gure bizitzan, hau da, gure buruan kontra jotzen dogula. Zergaittik jaten dogu txokolatia gaizki sentitzen geranian, ondoren horregaittik gaizkixo sentituko bagera?

Horren kontrakua dala diue enkrateaia; norbere buruaren gaiñeko boteria edukitzia. Baiña ez da erretza pulsueri era estoiko batian eustia. Ez dot esan nahi aszeta izatia danik irtenbidia. Aukeran, nik nahiago hedonista izatia!

Muturretara joan barik, ba omen daude klabe batzuk bizitza bizitzeko. Zazpi ipotxak, zazpi probintziak, zazpi aldetako kaktusa edo zazpikiak bezala, zazpi klabe aurkittu dittut horretan laguntzeko. Ez naiz jarriko banan-banan esplikatzeko, hemen zazpi ideiak:

1. Naturarekiko atxikimendua
2. Norberaren esku dagoena eta ez dagoena ezberdintzia
3. Borondatezko ezerosotasuna
4. Gaiñontzekuen iritziak kontuan ez hartzea
5. Teoriatik praktikara pasatzea
6. Gauzak perspektibatik ikustia
7. Bizitzaz disfrutatzea

Zer iritzi?

Neri asko gustatzen jata eta ahal doten neurrixan kontutan eukitzen dot. Badakit eguneroko bizitzak xurgatzen gaittuala, eta zurrunbillo horretan, zazpi puntu hauetatik aldentzen juten gerala.

Hau ez da pilula bat hartu eta kitto, honek eguneroko lana eskatzen dau, kontzientzia, erosotasunetik ateratzia, esfortzu bat ohiturak txertatu arte.

Zu orain euskal Pirinioak ezagutzen hasi zerala, gonbaratu zeinke hango bizimodua hemenguearekin? Ez jatzu begittantzen basatiago izanda bizitzaz gehixago disfrutatu ahal dala? Bizitzako momentu txixixeri beste zuku bat ateratzen jakuela?



*“Maleruski,  
berehalakotasunaren bide  
materialistaz eta positibistaz  
talka egiten du gure ildoak”*

**B**eijondeigula, Arkadi! Irakurle bat! Errukarria bera! Baina berriz zatozkidanez *bien-être*-aren inguruko sujet sasifilosofikoez, bildur naiz irakurle-bakarrarrari ez oteko zaion *Defcon5* alarma gorria piztuko eta gu bertikotz utziko.

la gure irudiak lagundurik izpiritualitate eta autokontzientziaren kosmologotzat hartzen gaituen; Ybong-Se monkhe xalindarra eta Ar-Khadi mouffi suffi pertsiarra baikinan “seduzituren” dugu oraingoan “irakurle-bakar”.

Zuk niri Sanskritoz legez, nik buthanieraz idatzi dizudan erantzuna itzuli dut euskarara soilik berarendako:

“Ados naiz, gorentasun mouffi Ar-Khadi, aipatzen dituzun arauz. Saiatzen naiz, itolarriz bada ere, 7ak1 egiten. Ez nauzu eredu bat ordea; izan ere, hedonismoaren kalterako, enkrateaia eta auto-diziplinak leku gehiegi hartu baitu nigan.

Jarrera honi gizarteagan dakusazkidan gaitz eta joerak gehiturik, gizaki arrats individualista, hertsia, bekaitz eta zimurra bihurtu naiz. Hala ere, konplexuen zamak, adinak eta bizitzaren eskarmentuek nolabait balioa duten hainbat giltzez hornitu naute unkhizaitearen xerkan.

Oh, non zirade zorientasun kamuts? Zein zirrikitu ilunetan? Aurki al zaitzaketa inon? *Où êtes-vous?*

- Akaso, ahalegin luze eta tinkoa eskatzen duten proiektu pertsonalen emaitzetan?

- Agian, agerian ez dauden eguneroko harremanen konplizitatean? Irrifar galdu, keinu abegikor, begirada dirdiratsu, esker on batean?

- Apika, tarte lasai bat hartuz, gozatzen dugun bizitza eta mundu miragarriaz jabetzean?

Maleruski, saldu nahi diguten berehalakotasunaren bide materialista, positibista eta postmodernistaz talka egiten du gure ildoak maisu.

3 aste behar omen dira ohitura berriak errotzeko, ez da bidezidorrak. Zorionez Mantrayana eskolak badauka 7ak1 diziplinan murgiltzen hasteko bi proposamen hagitz kuraiagarri:

- Telebista ahalik eta itzaliene ukan ezazu (bai, LaSexta ere).

- Murrizt bekizu igogailuen erabilera (barka bekigute Orona&Beltranek).

Informazio gehiago gure blogean: [www.le-parcours-av-bonheur.fr](http://www.le-parcours-av-bonheur.fr).

Namaste.”

## ANE ASTIAZARAN

Itzulpengintza ikaslea



## Hausnarketak

nari edo katalanez erantzuten dida-  
nari inbidia apur batekin begiratzen  
diodala.

Badakit faktore ugari hartzen du-  
tela parte gatazka linguistikoa, eta ez  
nator katalanaren eta euskararen arteko  
konparazio deskriptiboa egitera, hausnar-  
keta soziolinguistikoa bultzatzera baizik.

Katalan bat baino gehiagok aitortu dit  
modu batera edo bestera euskararen ego-  
era hobesten duela, nahiago duela euren  
hizkuntzarena baino, tresna politiko  
bihurtu delako geure hizkuntza, katalana  
"Kataluniako PProek ere erabiltzen dute"-  
n artean. Desberdin ikusten da egoera  
egunerokotasun linguistikoa diferentea de-  
nean, argi dago, baina zerk du pisu han-  
diagoa, euskaraz (edo katalanez) bizi  
ahal izateak edo hizkuntza bera politika  
egiteko erreminta ideologiko izateak?

Galdera horren harira sortutakoa da  
ondoren proposatu nahi dizuedan haus-

narketa, izan ere, euren hitzetan, ezinez-  
koa omen da Herralde Katalanetan kata-  
lanean soilik bizitzea. Bitxia iruditu  
zitzaidan ideia hura, orain arte ia zaila-  
goa egin baitzait gaztelaniaz bizitzea,  
*kar kar*. "Són bojos, aquests catalans?"  
izeneko dokumentala ikusteko gomendatu  
zidaten. Labur esanda, katalana mende-  
ratzen duen eta gaztelaniaz tutik ulertzen  
ez duen alemaniar batek katalanez bizi-  
tzeko dituen zailtasunak plazaratzen ditu  
dokumentalak. Katalunia ez ezik, Ando-  
rra, Catalunya Nord eta Franja de Ponent  
ere zeharkatzen ditu protagonistak ber-  
tako errealitate linguistikoa agerian utzi.

Orain, geurera ekarriz, noraino iritsiko  
litzateke soilik euskaraz komunikatzeko  
gai den pertsona bat? Hasi ere, hasiko  
luke bidaia? Edo, irakurketa baikor bat  
egin ahalko bagenu? Eta guztiok zur eta  
lur utziko bagintu?

*"Noraino iritsiko litzateke soilik euskaraz komunikatzeko gai den pertsona bat?"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-  
kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain  
hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adiera-  
zitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi  
**KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
**HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio  
**MAKETATZAILEA** Zalaa Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN**  
**ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizaba-  
laga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora  
Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea  
Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma  
Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iurbe, Eire Vila,  
Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ain-  
hoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen An-  
sola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras,  
Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola,  
Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E.  
**TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-  
1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ ALTSASU

Honezkerok denok egongo gara Altsasuko gertakarien jakinean; nola estatu aparatuek beste behin ere muntai polizialen apustua egin duten espainiar komunikabideen laguntzarekin. Beste behin ere gorrotoa Espainiako indar menperatzaileengandik eta beste behin ere errepresioa eta sufrimendua euskal gazteentzat emaitza.

Oraingoan Altsasu izan da, baina hurrengoan izan daiteke Elgoibar; izan gaitzke gu, izan zaitezke zu. Horregatik, halako gertakarien aurrean isilik geratzerik nahi ez dugulako, mobilizatzeko deia luzatzen dizuegu herritar guztioi. Indar okupatzaileek gure herritik alde egitea nahi dugu; desmilitarizatutako Euskal Herri bat

irudikatu nahi dugu berandu baino lehen.

Gure babes guztia beraz auzipetuei eta beren gertukoei, eta ostiralean 19:00etan Plazan egingo dugun kontzentrazioa hurbiltzeko gonbidapena elgoibartar guztioi. Era berean, gogoratu larunbatean eguordiko 13:00etan manifestazioa egingo dela Altsasun gertatutakoa salatzeko.

**Jaiki Gazte taldea**

### ▶ ORAINDIK GARAIZ GAUDE

Larunbatean, azaroak 26, GuraSOSeK "Gipuzkoa +: eman bidea Osasuna eta Adostasunari" lemapean manifestazioa antolatu du. GuraSOSeK aurkeztu duen bide orria babestu, erraustegiaren lizitazioa gelditzea eskatu eta gai honen inguruan adostasuna lortzeko garaiz gaudela

aldarrikatuko dugu Donostiako kaleetan.

Hondakinen arazoaren irtenbidea guztion eskuetan dago eta manifestazioarekin gipuzkoarroi aukera eman nahi digute hori bera adierazi dezagun: "Oraindik garaiz gaude, inoiz ez da berandu segurtasuna areagotu eta osasunarentzat eragin txikiena duen hondakin tratamendua bilatuzko". Manifestazioarekin bat egin dute besteak beste, Gorka Otxoa aktoreak, Garbiñe Biurrin epaileak eta Imanol Agirretxe eta Asier Illarramendi Realeko jokalariek. Manifestazioa 17:00etan abiatuko da Amarako Euskotrenen geltoki pareko Araba parkea eta Menduaren plaza ingururik eta Alderdi Ederren amaituko da. Animatu zaitezte!

**A.I.Z.**

# ERNE

## "SD EIBAR" BIRUSA HEDATZEN ARI DA...



### EIBARRERA ABONATU

### Eta PRIMERAKO AFIZIO BAT kutsatu

Informatu zaitez: [www.sdeibar.com/abonatuak](http://www.sdeibar.com/abonatuak) edo 943 201 831



**SDEIBAR**

• kutsatuzureafizioa



## Indarkeria Matxistaren Kontrako ekintzak egingo dituzte gaur Elgoibarren eta Mendaron

**G**aur, azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna da, eta horren harira, hainbat ekitaldi egingo dituzte gaur Elgoibarren eta Mendaron.

Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deituta, emakumeenganako erasoak salatzeko elkarretaratzea egingo dute gaur Kalegoen plazan, 19:30ean.

Mendaron, bestalde, *Women in black* ekimena antolatu du Tratu Onen Aldeko Taldeak, Udalaren babesarekin. Estatuan bikotekideek hil dituzten emakumeak ikusarazteko kale-ekintza izango da. Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak 16 urtez gorako herriko emakumeak inplikatu nahi izan ditu *Women in black* ekimenerako eta gaur iluntzean Herriko Enparantza hartzera deitu dituzte. Parte-hartzaile bakoitzak hil-



dako emakume bat irudikatuko du, isilean. 19:00etarako jarri dute ordua.

Ez dira baina horiek Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren bueltan antolatu diren ekintza bakarrak. Aste osoan zehar egin dituzte ekintzak Elgoibarko Gaztelekuan, liburutegian edota kultur etxean, eta oraindik ere geratzen dira pare bat ekin-

tza: Bihar, emakumeentzako autodefentsa tailerra egingo dute Olaizaga kiroldegian, 10:00etatik aurrera. Azkenik, hilaren 28rako hausnarketarako tailerra antolatu du Haizeak. Loredi Salegik dinamizatuta, *Jabekuntzan aurrerapausoak eman*ez tailerra egingo dute Kultur Etxean, 18:30etik aurrera.

## Azken zapatuko feria eta bigarren eskuko azoka egingo dituzte bihar

Hileko azken zapatuko feriak eta Mugikortasun Astearen barruan antolatu duten bigarren eskuko azokak bat egingo dute bihar. Hilero bezala, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da goizean goizetik Kalebarren plazan, eta 11:00etatik aurrera Lagun Taldea txirindulari elkarteak pintxoak salduko ditu txosnan. Etxeko txikienentzako sukaldaritza tailerra prestatu dute, eta eguerditik aurrera ganadu erakusketa egongo da Aita Agirre plazan. Oraingo honetan Kale Kantariak ez dute saiorik eskainiko. Gaur iluntzean entsegua egingo dute Kultur Etxeko sotoan abesti berri batzuk ikasteko, baina bihar ez dira kalera irtengo. Abenduaren 2an Euskararen Nazioarteko Egunaren harira antolatu diren ekintzetan parte hartuko dute.

Bestalde, bigarren eskuko produktuen merkaturia jarriko dute bihar Lekuederren. Herriko ikastetxeak, parrokiako misio taldea, Elgoibarko Izarrak eginiko esku tailerrak... jarriko dituzte salgai Lekuederren.



## Sebas Etxanizen aldeko bilkura egin dute

Karakateko lgoera antolatu zuen Morkaikok joan zen zapatuan, eta irteera baino hamar minutu lehenago Sebas Etxaniz preso elgoibartarraren aldeko elkarretaratzea egin zuten hainbat parte-hartzailek. Presoaren sende eta lagunek eskerrak eman nahi dizkiete izan zuten jarreragatik.

## 'Memoriaren ganbaratik' dokumentalaren aurkezpen irekia egingo dute azaroaren 29an

36ko Gerraren errekreazioan parte hartu zutenek ikusi dute dagoeneko *Memoriaren ganbaratik* dokumentala, eta saio irekia martitzenean izango da, hilaren 29an. Bi saio eskainiko dituzte, 19:00etan eta 21:00etan. Sarrerak egunean bertan Herriko Antzokiko lehiatilan egongo dira salgai, baina nahi duenak Pitxintxun erosi ditzake aurrez.



## Gipuzkoako Elikagaien Bankuak elikagai bilketa egingo du gaur eta bihar

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak janari bilketa antolatu du asteburu honetarako, eta Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak kudeatuko du Elgoibarko bilketa. Gaur eta bihar Elgoibarko hainbat saltokitan egongo dira elikagaiak uzteko kutxak (Eroski eta BM), 9:00etatik 21:00ak arte. Iaz, 16.550 kg. janari bildu zituzten Elgoibarren.

Sanlo Eskubaloitza Taldeak ere bat egin du elikagai bilketarekin, eta aurten ere *Jokalari bat = kilo bat* egitasmoa jarri dute martxan, jokalaria bakoitzak kiloko pakete bat edo litroko ontziren bat eman dezan. Olaizaga kirolegian egingo dute bilketa, azaroaren 25ean eta 26an, 17:00etatik 19:00etara, eta azaroak 27an 10:00etatik 12:00etara. Iazko kanpainan 400 kilo bildu zituen Sanlok eta marka hori hausteko helburua jarri dute aurten.

## Musikak hartu zituen kaleak Santa Zezilia Egunean



Santa Zezilia Eguna ospatu zuten martitzenean, eta beste hainbat ekintzen artean, Elgoibar Ikastolako umeak kalejiran joan ziren Kalegoen plazatik Ikastolara. Asteburuan ere izango dira Santa Zeziliaren omenezko ekintzak: bihar Parrokiako Abesbatzak kantatuko du 19:00etako mezan, eta koroko hildako kideak omenduko dituzte. Domekan, berriz, Udal Musika Bandak kalejira egingo du goizean, eta 12:30ean kontzertu berezia eskainiko du Herriko Antzokian.

## 'Amorante' saritu dute Musika Bulegoa sarietan

Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkar-teak musikari, sortzaile eta interpreteak saritu ditu, eta sarituen artean Iban Urizar elgoibartarraren *Amorante* bakarkako proiektua dago. Horrekin batera Juanjo Mena zuzendariaren ardurapean dagoen Berliner Philharmonikerren Zuzendaritzak, Rural Zombies taldearen (*Bat*) azken lanak eta Angel Unzu (*Duos*) saritu dituzte.





## ▶ NEREA MENDIZABAL

### PSIKOPEDAGOGOA

'Ez dut zigortu nahi' hitzaldia eskaini zuen Nerea Mendizabal psikopedagogoak joan zen astean Elgoibarren, Maitasunez Hezi laktantzia taldeak antolatuta. Seme-alaben hezkuntzaz arduratutako guraso asko eta askotarikoak bildu ziren ekitaldian, eta Kultur Etxeko hitzaldi gela txiki geratu zen. Nolako seme-alabak nahi ditugun galdetuz hasi zuen Mendizabalek bere jarduna, eta seme-alaba horiek hezteko mekanismoak aurkeztu zituen ondoren. Zigorrik gabeko heziketan oinarritu zuen bere diskursoa. Bi seme-alaben ama da Mendizabal, eta ama baten ikuspegitik eskaini zuen hitzaldia.

- AINHOA ANDONEGI -

# "Bestelako mekanismoak falta zaizkigulako zigortzen dugu"

### ◆ Posible al da zigorrik gabe hezteak?

Helburua ez da zigorrik gabe hezteak, baizik eta zigorrak transmititu nahi dugun balore hori transmititzeko balio digun edo ez jabetzea. Zigorrak bere funtzioa izan du hezkuntzan, eta oraindik ere badauka, batez ere, gurasoek beste errekurtsorik ez daukatean. Zigorren bidea hartzen denean garrantzitsua da kontuan hartzea ea erakutsi nahi dugun hori erakusten ari garen, eta baita seme-alabekin eraiki nahi dugun harremana bide zuzenetik gestionatzen ari garen. Sarritan konturatuko gara zigorra ez dela eraginkorra. Guraso zein hezitzaileok zigorrak erabiltzen ditugunean helarazten diegun mezua hau izaten da: etsipen egoeratan, botere gehien duena bestearen gainetik jarri daiteke, menpean hartu duen horri min eginez. Ziurrenik ez da hori izango helarazi nahi diegun mezua. Hala ere, beste metodori ez badaukagu, hobe da zigortzea ezer ez egitea baino, haurrak erreferentziarik gabe geratzea ere bere arriskuak dituelako euren garapenean. Permisibitatea zigorra bera baino arrisku suagoa dela esaten ausartzen naiz.

### ◆ Zein da zigorren ordez erabili beharreko metodologia?

Zigorren bidea ez den beste mekanismo bat hautatu nahi dugunean, espazio berri bat eraiki behar dugu gure barnean, eta espazio horretan zehaztuko dugu nola ikusi nahi dugun gure seme-alaba. Hau da, gure seme-alabak bere logela jasotzen ez duenean nola ikusi nahi dugu? Egiten duen ekintza horretan islatuta



ikusi nahi dugu soilik ala gizaki oso moduan ikusi nahi dugu? Logela jaso ez duelako pertsona desastre eta alfer moduan ikusiko dugu ala pertsona bezala bere osotasunean pentsatuko dugu zer sentitzen duen une horretan? Zer ari zaio gertatzen bere logela ez jasotzeko? Hori guztia ezagutzea ezinbestekoa da. Beste aldean, ni, ama, garrasika jartzean bere logela jasotzeko esanez, ekintza horiek soilik ikusi nahi ditut ala nire osotasunean ikusi nahi naiz? Barneko espazio hori sortzeak gu geu eta geure haurra hobeto ezagutzen lagunduko digu. Begiratze horretan, helburua elkar-ulertzea izango da, egiten ditugun ekintzen gainetik pertsona edo gizaki osoak garelako. Modu horretan ulertuko dugu gure haurrak zergatik ez duen bere logela jaso, zerk bultzatu duen egoera horretara. Aldi berean, ulertu dezaket ni zein balioren bila nabilen. Bai umea eta bai norbera gizaki oso bezala ikustea da oinarria; horrek lagunduko digu elkar-ulertzen, eta horrek emango digu materiala umearekin dialogatu eta irtenbideak topatzeko.



Behin dakigunean bai batari eta bai besteari zer gertatzen zaion, irtenbideak topatzeko estrategien bila hasi gaitezke; biko gertatzen zaiguna zainduko duten estrategiak topatu edo negoziatzen, alegia.

#### ♦ Zigorra gaizki ikusita dago, baina ez duzu uste mugak beharrezkoak direla seme-alaben hezkuntzan?

Bai, jakina. Haurrak erreferentziak eta mugak behar ditu, horrek segurtasuna ematen dio. Kontua da zein muga jartzen diren eta nola. Mugak eta arauak guretzat garrantzitsuak diren gauzak bermatzeko jarri nahi ditugunez, pertsonalak dira eta haurrak gure erreferentzia horiek zeintzuk diren ezagutzea behar du. Hau da, logela txukun ikusi nahi izatea nire muga da (beste batek txukun dagoela esan dezake), eta honek ezinegona sorrarazi diezadake. Nire muga dela onartzen dudana momentuan, ikuspegi horretatik hasiko naiz nirea eta umearena ulertzen, ondoren zer eta nola egin erabakitzeko edo berarekin negoziatzeko. Nik lasai eta eroso egon nahi badut etxea txukun ikusiz eta haurrak berari dagozkion erabakiak hartu nahi baditu, agian bere logelan egin dezakegu salbuespena, bere espazioan bere erabakiak har ditzan, eta espazio komunetan jarri dezaket gauzak bere lekuan egotearen muga. Nire kezka horrekin haurrari bere gauzen arduraren hartzearen balorea erakutsi nahi badiot, baina haurrak gela jasotzea baino jolastea nahiago badu, jasotze hori zerbait dibertigarri egin dezaket.

#### ♦ Arauak umearekin negoziatu behar direla esan nahi duzu?

Arauek gu zaintzen eta elkarbizitza bermatzen lagundu dezakete eta hauek elkarrekin sortuak diren momentutik, betetzeko zentzu eta indar gehiago izan dezakete. Baina, hainbat kontu ezin dira negoziatu. Nik ezin diot nire haurrari ni jotzen utzi, ezin dugu adostu pixkat jotzen utziko diodan edo ez, edo haserre badago bai eta bestela ez... Dena den, arauak jartzera koan nitaz hitz egiten jartzeak laguntzen du, arau horrek zertan laguntzen didan azalduz. Nik, ama bezala, ezin diot haur txiki bati errepidea bakarrik gurutzatzen utzi, niri beldurra ematen didalako. Nire muga da eta nigandik kudeatzen ikasi behar dut. Nik lasaitasuna eta segurtasuna behar badut ezer txarrik ez pasatzeko, hau adierazteak ez du esan nahi haurrak bete dezakeenik. Horretatik, ezin badu bere esplorazio grina kontrolatu, nik hartu ditzaket arriskua ikusten dudana lekuetan bera zaintzeko behar ditudan neurriak. Ez da umeak egin behar duen zerbait, nik egin behar dut. Ezin diogu gure bizitzaren urruneko mandoa umeari eman. Azken batean arauen negoziazioan umearen beharrezkoak zaindu eta nireak bermatzen jarri dezaket atentzioa, elkar ulertzeko estrategia desberdinak erabiliz.

#### ♦ Teoria ulertzen da, baina praktikan hori guztia posible al da?

Ez gaude ohituta perspektiba zabalitzen eta bestearengan konfiantza izaten, nirea zaintzeaz gain, umearena ere zaindu dezakekela. Argi utzi nahi dut umearen sentimenduak ulertzea ez duela

esan nahi berak egin nahi duen guztia egiten utziko diogunik, baina gizaki oso bezala ikusten badugu gauzak asko erraztuko zaizkigu. Marshall-ek esaten zuen *"el ser humano necesita más ser reconocido que ser satisfecho"*. Askotan umeari agintzen diogunean bere gela jasotzeko edo afaltzera etortzeko, ez dugu ulertzen berak egin nahi duena eta gainera ez diogu uzten berak nahi duena egiten. Zaindu dezagun guretzat inportanteak diren gauzak beharrezko ditugun mugekin, baina behintzat uler diezaiogun!

#### ♦ Zigorra batzutan moztu egiten dugula aipatu zenuen.

Bai, ondorioekin moztu egiten dugu. Ez baduzu zure logela jasotzen, gaur ez dizut ipuinik kontatuko. Hori zer da, zigorra ala ondorioa? Horiek guztiak zigor garbiak edo moztuak dira. Mugak eta arauak nondik, zein ikuspuntutatik jartzen diren da klabea. Aurreko batean aita batek esan zidan bere haurrak ez zituela oinetakoak jantzi nahi parketik etxera joateko. Eginahalak egin arren, ez zuen lortu umeak zapatak jantzea, eta azkenean, etsita, umeari nahi zuena egiten utzi zion. Aita hori ohartzen zen etsipen eta permisidadetik ari zela, eta beraz, bere sentimenduak ez zirela kontuan hartu. Hankahutsik joateko aukera emateko irekita banago (aita honek utzi zion, beraz egin zezakeen) haurraren eta bere beharrezkoak asetzearen ikuspegitik bizi dezake. *"Ikusten dut ez duzula batera gogorik zapatak jantzeko, horrela eroso zoazela eta zuk erabaki nahi duzula nola itzuli etxera. Nik seguru egon nahi dut minik hartu gabe iritsiko zarela etxera eta zer iruditzen zaizu begiak erne eramaten baditugu hanka pauso bakoitza non jartzen duzun begiratu..."*. Bi moduetan umeak berak nahi

duena egitea lortzen badu ere, modu batean permisibidatearen arriskua dago (haur honekin ezin dut gehiago, beti berak nahi duena egin behar du) eta bestean ez (haurraren beharrezkoak kontuan hartu nahi ditut, nirearekin ahaztu gabe). Umearen erabakiaren ondorio zuzenak esploratzeko modua izan daiteke, hau da, oinutsik joateko erabakia hartu duenez, min hartzeko arriskua dauka eta horren aurrean guraso bezala gure esku dagoena egingo dugu bera zaintzeko. Hori da ekintza baten ondorioa. Baina umeari esatea oinutsik joateagatik gauean ez duela telebistatik ikusiko ez da ekintza baten ondorioa; zigorra baizik.

#### ♦ Zigortzea ez zaio inori gustatzen. Zergatik zigortzen dugu?

Gehienetan zigortzen dugu bestelako mekanismoak falta zaizkigulako. Niretzako ere teoria hau berria da. Azken zortzi-hamar urtetan ari naiz deskubritzen eta honetan entrenatzen dihardut, eta hala ere zenbait egoeratan izugarri kostatzen zaizkit. Ez dugu hezkuntza hori jaso. Badakigu zigortzeak ez didala bermatzen haurrari eman nahi dizkiodan baloreak transmitituko ditudala, eta gainera gure arteko harremanean ere eragina daukala. Ez zaigu gustatzen, ez dugu zigortu nahi, baina egoera askotan ez daukagu beste modurik.

*"Haurrak  
erreferentziak eta  
mugak behar ditu,  
horrek seguridatea  
ematen dio"*

# Euskara, plaza publikora

Abenduaren 2an euskaltzalez beteko dira Elgoibarko kale eta plazak. Elgoibarko *Euskarak 365 Egun* Taldeak 'Jalgi hadi plazara!' ekimena antolatu du egun horretarako, aldarrikapena eta festa uztartzen dituen ekimena, eta 53 elkartek eta 500 lagun baino gehiagok parte hartuko dute. Kalegoen plaza eta Maalako parkea batuko dituen giza katea eta herriko hainbat elkartek elkarlanean ondutako jaialdia izango dira ekimenaren bi zutabeak, eta parte hartzera eta gozatzeraz deitu dituzte herritarrak antolatzaileek.

- AINARA ARGOTIA -

## ▶ Elgoibarko *Euskarak 365 Egun* Taldea



## “Kalera irten eta euskaldunak garela ospatu behar dugu”

Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak instituzioei oso lotuta ikusten zituelako hasi zen Euskal Herriko Euskaltzaleen Topagunea egun hori beste modu batera ospatzeko dinamika sustatzen. Hala, 2013an, Durangoko Berbaro euskara-elkartek proposatuta, *Euskarak 365 Egun* ekimena antolatu zen Euskal Herriko hainbat herritan. Elgoibarren ere azken hiru urteetan antolatu da, eta herriko 12 elkarterakundek osatzen duten taldeak dauka horren ardura. Lanpetuta daude taldeko kideak aurtengo azken orduko antolakuntza-lanekin, baina hartu dute tarte bat **BARRENI** erantzuteko.

### ♦ Zergatik *Euskarak 365 Egun* ekimena?

Helburu bat baino gehiago dago ekimen horren atzean, baina bat nabarmendu behar badugu, esango dugu elgoibartarion euskaltasuna plazaratzeko eta aldarrikatzeke ekimena dela. Euskaldunak gara, euskaldunak izan nahi dugu, eta hori aldarrikatzeraz iritertzen gara kalera.

### ♦ Zein dira antolatzen dituzuen ekimenen ezaugarri nagusiak?

Euskaltasuna aldarrikatzeke modu edo era asko dago, zalan-tzarik gabe, baina, gure kasuan, hiru ezaugarri uztartzen saiatzen gara: batetik, ekintza parte-hartzailea izatea nahi dugu; herriko elkartek eta jendea dira protagonista; bestetik, gure euskaltasuna herriko plaza eta kaleetan aldarrikatu nahi dugu; plaza publikora ateratu nahi dugu euskara; eta, hirugarrenik, euskaltasunaren aldarrikapena modu ludikoan egin nahi dugu; guretzat euskara jaia

da, bizipoza, ardura eta konpromisoa ere baden bezala.

### ♦ Zuentzat, beraz, badago euskararen eguna ospatzeko motiborik.

Dudarik gabe! Euskararen egoera ez da guk nahiko genukeen modukoa, baina, ondo pentsatzen badugu, euskaldunok mundu honetan egotea milagro txiki bat ere bada. Milaka hizkuntza desagertu dira historian zehar (500.000 inguru, adituen arabera), baina euskaldunok hemen gaude oraindik. Badaukagu, bai, pozik egon eta ospatzeko arrazoirik!

### ♦ Ekimen horiek, baina, ez al dago euskara egun batekin lotzeko arriskua?

Arriskua hor dago, bai, baina gure taldearen markak, *Euskarak 365 Egun*, argi dio guretzat euskara ez dela egun bateko kontua. Abenduaren 3an da Euskararen Eguna, baina lelo horre-



kin euskarak 365 egun dauzkala aldarrikatzen dugu. Beste kontu bat da ekimenean parte hartzen duen bakoitzarentzat euskarak zer toki betetzen duen eguneroko bizitzan. Galdera horri gutariko bakoitzak erantzun beharko lioke, zintzo-zintzo.

## ◆ **Iaz aparteko arrakasta lortu zenuten *Beitxu,beitxu!* lipdaparekin!**

Bai, itzela izan zen iazkoa. Izugarria. Arestian aitatu ditugun ezaugarriak ondo baino hobeto betetzeaz gain, aparteko oihartzuna izan zuen lipdubak, bai Elgoibarren eta baita Elgoibartik kanpo ere. 33.000 bisita izan ditu Interneten urtebetean, eta hori izugarria da gurea bezalako herri txiki batean sortutako bideo batentzat.

## ◆ **Zer prestatu duzue aurtengorako?**

Bi atal nagusi izango ditu aurtengo ekimenak: batetik, Kalegoen plaza eta Maalako parkea lotuko dituen giza katea egingo dugu; 53 elkarte parte hartuko dute eta 500 lagunetik gorako giza katea osatuko dugu. Eta bigarrenik, giza katea Maalara iristen denean, *Plazera plazara* jaialdia izango dugu, 18 elkarterakurderen parte-hartzearekin; jaialdian, besteak beste, karaokea, dantzak, kantak, esketxak eta euskal *txirigota* izango ditugu. Gainera, egun horretan sortzen den guztia bi bideotan jasoko dugu. Antolatzaileena izango da bat, eta herritarrek bidalitako bideoekin osatuko dugu bigarrena.

## ◆ **Zelan eutsiko diozue hurrengo urteetan horrelako lan dinamika bati?**

Oraindik goiz da datorren urtekoarekin pentsatzen hasteko, baina, behar bada, lau urtean ekintza sinbolikoak prestatzen jardun ondoren, beste urrats edo pauso bat ematea proposatuko diogu Elgoibarko herritari. Euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasa gaitzke, elgoibartarrok hala nahi badugu. Egotetik egitera, hain zuzen ere. Baina hori, izatekotan, datorren urtetik aurrera izango da. Izan ere, aurtengoan zentratuta gaude, eta gure onena eman nahi dugu dena ondo irten dadin.

## ◆ **Zerbait gehitu nahi amaitzeko?**

Elgoibartarrak abenduaren 2an kalera irtetera animatu nahi ditugu. Beste ehunka herritarrekin batera, euskaldunak garela ospatuko dugu, kalean, denok batera eta jai-giroan.

### **JALGI HADI PLAZARA! EGITARAUA ABENDUAK 2, OSTIRALA**

- **19:00 Giza katea, Kalegoen plazatik Maalara.** 53 elkarte eta 500 lagun baino gehiagok parte hartuko dute. 18:30ean bildu behar dira Kalegoen plazan, giza katean parte hartu behar dutenak.
- **19:30 Plazera plazara, Maalan.** Herriko 18 elkarterekin: karaokea, errezitaldiak, dantza, musika, esketxak, txirigota...

### **JALGI HADI PLAZARA! herri-BIDEOA**

*Jalgi hadi plazara!* ekimeneko bideo-irudiak grabatzera animatu dituzte herritarrek antolatzaileek. Bideoak gehienez 10 segundokoak izan behar dira, eta [elgoibar365@gmail.com](mailto:elgoibar365@gmail.com) helbidera bidali behar dira abenduaren 5a baino lehen. Irudi horiekin bideo bat osatu nahi dute, eta horretarako, irudiak horizontalean grabatzeko eskatu dute.



1. Erraldoiak
2. Udal txistulariak
3. Udalbatza
4. Elgoibarko Izarra
5. Gazte Asanblada
6. Jaiki gazte taldea
7. Herri Eskola
8. Ikastola
9. Elgoibarko Lagun taldea
10. Insiitutua
11. Gure Esku Dago
12. EA
13. AEK euskaltegia
14. Haizea
15. Igeriketa-taldea
16. Mintxeta atletismo taldea
17. Musika Eskola
18. Dultzaineroak
19. Ongarri zine-kluba
20. Lagunak pilota-eskola
21. Errigora
22. Haurreskola
23. Eskuz
24. Nagusilan
25. Egur
26. Tenis
27. CD Elgoibar
28. Sare
29. LAB
30. Udal Euskaltegia
31. Sortu
32. Morkaiko
33. IMH
34. EAJ
35. Txankakua
36. Sanlo
37. Meka
38. Stop deshaucios
39. Prekarietatea
40. Urnobotza
41. Loreak emakume-taldea
42. Kalamua guraso-elkartea
43. Ikastolako gurasoak
44. Altzola Zubibai
45. Aire andaluz
46. Udal langileak
47. Haritz dantzari-taldea
48. Danobat
49. Mautitxa txaranga
50. Kontsumo taldea
51. Kale kantariak
52. 60 +
53. Musika Eskolako trikitilari taldea

### **PLAZERA PLAZARA jaialdia**

- **Musika Eskola.** Musika, kantua eta dantza: *Guk euskaraz*
- **Aire flamenco.** Dantza (sevillanak)
- **Loreak emakume taldea.** Poesia errezitaldia
- **Elgoibarko Izarra.** Euskal txirigota
- **Gure Esku Dago.** Karaokea: *Gure Esku Dago*
- **IMH.** Karaokea: *Katuak bezala*
- **Herri Eskola.** Karaokea: *Txantxangorria naiz*
- **Ikastola.** Koreografia: *Gora gure ikastola!*
- **Kale kantariak.** Kantua: euskal kanten popurria
- **Kalamua guraso elkarte.** Errezitaldia: *Euskararen patua*
- **EAJ.** Karaokea: *Aldapan gora!*
- **Udalbatza.** Karaokea: *Euritan dantzan! Gatibu*
- **Insiitutua.** Koreografia: *Hona bostekoa!*
- **AEK euskaltegia.** Esketxa
- **Haritz dantzari-taldea eta dultzaineroak.** Dantza, jendearrekin batera
- **Igeriketa taldea.** Musika
- **Mautitxa txaranga, Aitor Nova, Nerea Gil eta Garazi Aiesta.** Musika eta kantua: *Beitxu,beitxu!*

# Euskara eta lan mundua lotzeko lehiaketa irekia antolatu du DANOBATGROUPek

## Parte hartzen dutenen artean bi smart-watch zozkatuko dituzte

**A**zken urteotako ohiturari jarraituz, euskara eta lan mundua uztartuko dituen lehiaketa jarri du martxan DANOBATGROUPek Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Baina aurten pauso bat aurrera eman dute antolatzaileek, eta taldeko langileek ez ezik, DANOBATGROUPek lantegiak dituen herrietako bizilagun guztiek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Herritar guzti horiengana iritsi nahi dute. **Euskara aldean, erabili lanean** lemapean antolatu dute aurtengo lehiaketa. Aldean dugun euskara hori lanean, etxean, kalean eta beste edonon erabiltzea nahi dute.

Lehiaketa modu digitalean antolatu dute, eta parte hartzeko [www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa.html](http://www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa.html) helbidean klikatu behar da. Ariketa bat egongo da bertan, eta webgunean aurkitu beharko da ariketa osatzeko informazioa: hiztegi teknikoan, Tailerreko Eskuliburu Teknikoan... Kooperatibari buruzko galdera orokor batzuk eran-

tzun beharko dira batetik, eta bestetik, hiztegi teknikoaren gaineko hitz batzuren esanahia asmatu beharko da.

Abenduaren 3ra arteko epea dago lehiaketan parte hartzeko, eta parte hartzen duten lagun guztien artean bi smart-watch zozkatuko dira.


### EUSKARAREKIKO KONPROMISOA

DANOBATGROUP taldeak euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendu eta sentsibilizazio berezia erakutsi ditu sortu zenetik. Atxikimendu hori langileei begirakoa zein gizaritari begirakoa da, eta horrekin lotuta DANOBATGROUP osatzen duten kooperatiba guztietan euskara planak dituzte martxan, langileen artean euskararen erabilera areagotzeko, motibazioan eragiteko eta ezagutza handitzeko.

DANOBATGROUPek salmenten ehuneko handia esportaziora bideratzen du, eta bezeroak ez ezik, horni-

tzaileak, ordezkariak, banatzaileak, produkzio fabrikak... ditu atzerrian. Horiekin guztiekin izaten dituen komunikazioetan hainbat hizkuntza baliatzen ditu, baina ingelesa da nagusi. Halere, gertuago ere beste hainbatekin komunikatu behar izaten du; hala nola, hornitzaileekin, ikastetxeetako ordezkariekin, administrazioekin... eta, nola ez, kooperatibetako langileekin. Beraz, euskarak ere leku garrantzitsua du egunerokoan.

Baina horrez gain kooperatiba gisa duen gizarte erantzukizunari erantzunez euskararekiko konpromisoa adierazi izan du beti, eta gaur egun ere hala jarraitzen du herri mailan egindako hainbat ekimenetan. Euskararen Nazioarteko Eguna ez da oharkabean pasako DANOBATGROUPen aurten ere. Lantegian egiten den lanaren berri emateko eta euskararen garrantzia azpimarratzeko ekimenetako bat da lehiaketa hau. **Euskara aldean, erabili lanean**. Hartu parte lehiaketan, denok irabaziko dugu-eta!



*Euskara aldean, erabili lanean*

**HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!**

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi SMART WATCH bat!



[www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa.html](http://www.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa.html)

\*Parte hartzeko epea 2017ko abenduaren 3an, gaueko 12etan itxiko da



# Mendaro Ikastolak eta Elgoibarko ikastetxeek bat egin dute Euskararen Nazioarteko Eguna

Euskararen Nazioarteko Eguna harira Mendaro Ikastolak eta Elgoibarko ikastetxeek prestatu dutenaren laburpena ekarri dugu hona. Nork bere erara ospatuko du, baina Mendaro Ikastola ez beste guztiek Elgoibarko euskarak 365 egun taldeak abenduaren 2rako antolatu duen giza-katean eta Plazera plazara ekitaldian ere parte hartuko dute.

## Mendaro Ikastola

Irailaren 28an hil zen Imanol Urbieta (Zarautz, 1934) musikari eta idazle handia omentzeko baliatuko dute euskararen egunaren harira abenduaren 2an egingo duten jaialdia. Urbietaren kantuak abestuko dituzte umeez, ikasurteka banatuta, eta bukatzeko, *Euskararen txantxangorria* kantua abestuko dute elkarrekin. Jaialdia ikastolako patioan izango da urtero bezala, eta irekia izango da, nahi duen guztiak ikusteko. 15:15ean hasiko da. Arratsalderako kantu kalejira antolatu du Arnok. 18:30ean hasiko da kalejira, Azpilgoetan, eta San Josen bukatuko da.

## Herri Eskola

Elgoibarren, kalera irtengo dira Herri Eskolako 4 urtetik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko ikasle eta irakasleak euskararen egunaren bezperan, hilaren 2an. King-Kongetik irtenda kalejira egingo dute herri erdigunean zehar eta Maalan bukatuko dute. 9:30ean abiatuko dira King-Kongetik plazaruntz, Errosario kalean barrena, eta San Bartolome kaletik behera egingo dute gero, Maalara arte. Han disko-festa egingo dute. Arratsaldean, ikastetxe barruan jarraituko du jaiak.

## Elgoibar Ikastola

Elgoibar Ikastolan ere egun osoko egitaraua antolatu dute, baina ikastetxean bertan ospatuko dute euskararen eguna: pregoia irakurritz hasiko dute eguna eta antzerkia, jolasak,

eta herri-kiriolak egingo dituzte eta Euskararen Nazioarteko Eguna bueltan prestatutako kanta-sorta abestuko dute haur eta gaztetxoek.

## Arreiturre BHI

Arreiturre BHIko batxilergoko ikasleek jaialdia antolatu dute abenduaren 1erako egitarau oparoa antolatu dute: euskararen manifestuaren irakurketa, Markos Untzeta eta martistarren kantaldia, euskal dantzen saioa, Saxo taldearen emanaldia, bertso-saiotxo eta Imanol Urbieta musikagile handiari gorazarre egineko sortu duten omenaldia eta Mihiluze saioa. Herriko Antzokian izango da jaialdia, 12:30ean. Arreiturre BHIko DBH ikasleek ikastetxean bertan ospatuko dute Euskararen Nazioarteko Eguna, abenduaren 2an: iazko jaialdiko bideoaren emanaldia, manifestuaren irakurketa, dantzak, bertsoak eta altxorren bila jolasa egingo dituzte 12:20tik 14:10a bitartean.

## Meka

Meka eskolakoek ere ikastetxean egingo dituzte Euskararen Eguna harira antolatutako ekintzak. Urteroko ekintzez gain, ikastetxeko hainbat ikasleri euskararen inguruan hartutako testigantzekin bideo bat osatu dute, abenduaren 2an eskolan emango dutena. Etorrinen seme-alabak dira bideoko protagonistak eta euskarara zer ekarri dituen eta euskaraz ikasteak zer eman dien azalduko dute.

## IMH

IMHn, hizkuntzen inguruko sentiberatze saioak egingo dituzte eta Hizkuntza-kudeaketak enpresan daukan garrantzia aztertuko dute Lanbide Heziketako, Ingeniaritzako eta Langa-beentzako ikastaroetan ikasleekin, abenduaren 2an eta 29an. Abenduaren 2an, *Zer egin dezaket nik euskararen alde?* murala osatuko dute eta Danobaten lehiaketan parte hartu duten ikasleen artean saria zozketatuko dute.



## AEKn salgai dute Korrikaren aldeko materiala

Korrikaren hogeigarren edizioa izango da 2017koa, eta giroa berotzen hasi dira dagoeneko antolatzaileak. Euskararen aldeko jarduna finantzatzeko Korrikaren aldeko materiala sortu du AEKk ohi legez, eta dagoeneko jarri dute salgai. Elgoibarren, AEK euskaltegian bertan jarri dute erakusgai material hori, Gabriel Kurutzelaegi 10ean.

# “Diru gehiago inbertitu behar da berdintasun politiketan eta politika feministan”

## ► MALEN ALDALUR ‘KLITTO!’ ALDIZKARIKO KAZETARIA

*Indarkeriaren aurpegiak ikusaraziz izenburuko solasaldia eskaini zuten joan zen barixakuan Malen Aldalur eta Ana Iruretagoyena kazetari eta Klitto! aldizkariaren sortzaileek Mendaron. Tratu Onen Aldeko Mendaroko Taldeak gonbidatuta etorri ziren, eta luze eta zabal jardun ziren indarkeria matxistaz.*

- AINARA ARGOITIA -

◆ Gero eta argiago hitz egiten da indarkeria fisiko eta sexualaz, bereziki bikote harreman barruko indarkeriaz, baina erdigunean indarkeria hori bakarrik jarri izanak ez al ditu beste indarkeria mota batzuk are ezkutuago egin?

Egunerokoa iristen zaizkigun mezu askok bikote harremanean gertatutako eraso fisiko bezala irudikatzen dute indarkeria matxista, baina gu saiatzen gara ikusarazten beste indarkeria adierazpide batzuk ere badaudela eta askotan, gehienetan, oharkabean pasatzen zaizkigula. Gure egitekoak horien inguruan gogoeta egitea izan beharko luke, horiek guztiak identifikatzeko, eta aukerarik balego, erradikatzeke. Izan ere, identifikatu ezean, erreproduzitu egiten ditugu. Izebergaren irudia erabiltzen dugu guk erakusteko agerikoena indarkeria fisikoa dela, bai, baina hor azpian dagoena dela hemen arazo potoloa. Hori azaleratzea dago-kigu. Egunerokoa gure ingurua ikuspegi kritikotik aztertzen badugu ohartuko gara zer nolako indarkeria jasaten dugun. Solasaldian ere aipatu zuen emakume batek: auto bat erostera joan eta autoari buruzko azalpen guztiak senarrari eman zizkiotela eta berari autoko aire-goazgarriari buruz hasi zitzaizkiola hizketan.

### ◆ Mikromatxismoak?

Bai, baina bueno, hain mikro ere ez direnak azkenean. Erasoak dira, emakumea gutxiesten duten erasoak. Egoera deseroso eta biolentoak sortzen dira, eta



zaila da ez konturatzea, baina badira beste mikromatxismo asko oharkabean irensten ditugunak musika, moda... eta abarren bidetik. Ostiraleko solasaldian ariketa modura planteatu genien. Taldetan jarri eta egunerokoa bizi dituzten indarkeria adierazpideak identifikatzen jarri genituen, eta oso interesgarria izan zen. Irten ziren egunerokoa eta bikote-harremanean sortzen diren botere-harreman desegoki asko, indarkeria adierazpide ezberdinak azken batean. Maitasun erro-

mantikoaren mitoa eta beldurraren gaia ere askotan irten ziren solasaldian. Gehienak alaben amak ziren, eta hitz egin zuten gauean kalean ibiltzean sentitzen zuten beldurraz eta euren alabengatik zuten kezka. Eta hori indarkeria da, emakumeok bizi garela eguneko 24 orduetan gizonak bizi ez duten beldur bat jasaten. Umetatik sartu digute beldur hori, eta jakina, normala ere bada erasoak geuk jasaten ditugulako. Maialen Lujanbioren hitzak erabiltzen ditut nik halakoe-



tan: *Alabari kontuz eta erne esaten hainbeste saio/ baina kontuz eta erne seme-ari esan behar zaio.*

♦ **Indarkeria adierazpide asko oso normalizatuak dauzkagu. Horiek irakurtzeko gakoez hitz egingo zenutela iragarri zuten antolatzaileek. Adibidez?**

Egunkariak irakurtzean beti egiten dut ariketa bera: generoak aldatzea. Ikustekoa da hori eginda nolako sorpresak hartzen ditugun. Mekanizatuta eta automatizatuta dauzkagu ideia oker asko. Mediki bati buruz ari garenean, eta mediku hori emakumezkoa bada, zehaztu egiten dugu, medikua gizonetzkoa denean egingo ez genukeena. Egin ariketa: alabari ari zataizkionean pentsatu seme-ari hala hitz egingo zeniokeen, eta alde-rantziz.

♦ **Indarkeriari aurre egiteko, emakumeen ahalduntzearen alde egin behar da, baina gizonen euren pribilegioei uko egin ezean badago aurre egiterik?**

Ahalduntzean jarri behar da indarra, baina *superwoman*-ak ere ezingo gara izan eta beste parteari ere esan beharko dizkiogu ba gauzak!. Gauzez ibiltzearen kontu horrekin, adibidez. Egia da alabari erakutsi behar diogula beldurrik ez izaten, baina seme-ari ere esan beharko diogu mugak non dauden, inoren semea ez delako erasotzailea, baina norbaiten artean duelako. Emakumeek espazio jakin bat okupatzen dugu gaur, eta hori grafikoki adieraztean ikusten badugu gizonen espazioaren hiru laurden okupatzen dutela eta laurden bat guk, garbi dago gizonen lekua egin beharko digutela gu haziko bagara. Emakumeak ahalduntzeko eta espazio publikora irteteko, biseratatzeko, gizonen espazioa utzi behar digute.

♦ **Gazteengan jartzen da aspaldian fokoa. Ustez beste hezkuntza bat jaso duten arren, gure gizon gazteak ez dira garai batekoengandik oso ezberdinak. Datu bat: hamar sexu erasotik hiru 30 urtez azpikoetan gertatzen da.**

Jakin ere gero eta gehiago dakigu gaur eta salatu ere gero eta gehiago egiten da, baina, bai, egia da, datua oso

kezkarria dela. Arduragarria da oso 30 urtez azpikoetan halako jokabideak ikustea, baina kontu horretan eragin handia dute lehen aitatu dugun indarkeria isil horrek edo jendeak indarkeriatzat interpretatzen ez dituen gauza guzti horiek: tabernetan entzuten dugun musikak, hedabideetan ematen zaizkigun mezuak...

♦ **Kuriosidadez, zuen solasaldian parte hartu zutenetik zenbat ziren emakumeak eta zenbat gizonak?**

Emakumeak hogeit bat eta gizonak bi.

♦ **Oraindik gai hau andreen kontua da?**

Emakumeak espero genituen eta emakumeak etorri ziren gehienbat, bai. Kaltetu nagusiak geu izanda, egia da kezkatuen gaudenak ere gu garela, eta egia da, era berean, antolatzaileak ere gehienetan emakumeak izaten direla. Eta egia da halakoetara etortzen direnak normalean gai honen inguruan kontzientzia hartu dutenak izaten direla, arazoa zein den identifikatzeko gai direnak, nahiz oharkabeen kaka asko jaten duten hauek ere, jakina.

*“Arazoa egiturazkoa da. Gizarteak sortzen ditu gizonak eta emakumeak, erasotzaileak eta biktimak”*

♦ **Erakundeetako ordezkariak zabala ikusiko dugu ziurrenik pankartaren atzean Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunean [gaur]. Iruditzen zaizu apustu politikoa behar bestekoa dela?**

Ez. Pankarta atzera denak batzen dira, baina gero ez da diru gehiago inbertitzen berdintasun politiketan edo politika feministetan. Irudia ematea ondo dago, hori ere beharrezkoa delako, baina dirua jarri ezean ez dago asko egiterik. Eta batez ere, kontzientziazio politikoa egin behar da. Prestigioa eman

feminizatutako arloei, alor pribatuan zokoraturakoei.

♦ **Pribatua dena publiko egin?**

Bai. Indarkeria matxista egitura arazoa da, baina gai hau lantzeko orduan askok ez dute izaera estrukturala aintzat hartzen. ‘Mutil batzuek neska batzuei jotzen diete’, esaten dute. Gizon batek hiltzen du emakume bat eta kasu isolatutzat hartzen da, baina ez, hori gizartean oso errotua dagoen kontua da: gizarteak sortzen ditu gizonak eta emakumeak, erasotzaileak eta biktimak. Instituzioak oso urruti daude izebergaren punta hori ikustetik, ba pentsatzen duten egiteko izebergaren alde potoloa ikusteko, indarkeria ikusezin hori ikusteko. Euskal Telebistan *Gu ta Gutarrak* saioan entzuten direnekin, adibidez, etengabe ari gara indarkeria matxista erreproduzitzen, eta berdin Euskadi Gazteko 25 kantu entzunenen artean *“te partiré la cara”* esaten duen hori egotea baimentzen dugunean. Horiek ikusita, instituzioei momentuz eskatuko nieke ahalegin handiagoa egiteko izebergaren puntako horren kontra egiten eta hastea behekoari erreparatzen.

♦ **Indarkeria egoerak justifikatzeko emakumei erasoak probokatzea egozten dieten epaileak ere izan direnean zaila ematen du konponbideak.**

Bai, eta larritzen naute halakoek. Emakume bat bortxatu dutenean eta eta kaletan ‘nola joan ete da jantzita?’ modukoak entzuten ditudanean ikaratu egiten naiz. Errua beti da emakumearena. Zer babes sentiitu dezake emakume batek indarkeria salatzen? Protokoloak ezarri dira eta hasi dira indarkeria jasan duten emakumeekin harremana izango duten profesionalak hezten ere genero ikuspegia izan dezaten, baina oraindik profesional asko daude instituzioetan lanean formatu gabe. Gertatzen da erasotutako berak frogatu behar duela eraso egin diotela eta bere hitza beti dagoela zalantzan. Hedabideetan ere oraindik sarri irakurtzen ditugu *‘presunta agresión’* eta halakoak. Ustezkoa erasotzailea da, ez eraso. Gauza horiek ez dira beste edozelako indarkeria kasuetan ematen.

# “Musika Bandak daukan onenatarikoa gure arteko harremana da”

## ► RICARDO GORRITI

UDAL MUSIKA BANDA KO PERKUSIO JOLEA

**50 urte bete ditu aurten Ricardo Gorritik Udal Musika Bandako kide moduan. 1963. urteko maiatzean egin zuen debuta, eta ordutik hamaika kontzertu eta kalejiratan hartu izan du parte. Domekan omenaldia egingo diote, Santa Zezilia Eguneko kontzertuan.**

- AINHOA ANDONEGI -



### ◆ 50 urte Udal Musika Bandan. Nola bizi duzu zure 50. urterren hori?

Ilusio handiz. 1966ko maiatzean jo nuen estreinakoz Musika Bandan, dantzaldi batean. Jose Zubiaurre *Balle* zen orduan zuzendaria, gero Katxorekin jardun nuen beste urte pila batean, eta orain Txomin Mujikarekin. Musika Bandan sartu aurretik, 11 bat urterekin edo, Txomin Mujika, Jon Arrieta eta Periko Azpiazurekin txistularien taldea osatu genuen.

### ◆ Nondik datorkizu musikarako zaletasuna?

Nire familian beti izan dugu musikarako zaletasuna: amaren bi neba musikariak ziren, eta aitaren partetik ere, nire izeba bat Tolosako musikari batekin ezkondu zegoen. Niri beti gustatu izan zait erritmoaren kontua eta hasieratik aukeratu nuen perkusioa. Oso gazte sartu nintzen musika munduan, betidanik gustatu izan zait. Koadrilako lagun batzuk *Ballerekin* hasi ginen solfeo ikasten, eta eguerdian nire osaba Antonio Azpiazu ere ematen zizkidan musika eskolak. Gerora, instrumentuarekin hasi nintzanean Julio Buenok ematen zizkidan klaseak. Berak tronpeta jotzen zuen bandan, baina aurretik tanbor-jolea izan zen. Bere etxean ematen zizkidan eskolak, egunean 10-15 minutuz. Gaur egun erraztasun handiagoa dago musika ikasteko. Gure garaian ez zegoen kontserbatoriorik eta ezer, eta ahal genuen moduan ikasten genuen.

### ◆ Elgoibarko Udal Musika Bandak hilero eskaintzen ditu kontzertuak eta Herriko Antzokia bete egiten da.

Guk ilusio handiz bizi ditugu kontzertu horiek. Mota askotako piezak jotzen ditugu, eta apur bat kontzertu tradizionaletatik irten egiten gara. Orain pelikulen soinu bandak edo rock abestiak ere jotzen ditugu, eta horri esker publiko zabalagoa erakartzen dugu. Iaz ere kontzertu berezia eskaini genuen Maalako parkean: Gorka Mujikari bururatu zitzaion zerbait berezia egitea, eta rock gaua antolatu genuen. Maala bete egin zen, eta sekulako arrakasta izan zuen kontzertuak. Esperientzia oso ona izan zen. Azken

batean, partiturak egonez gero, musika bandak edozein abesti jo dezakeela erakutsi dugu.

### ◆ Urtean zehar izaten dituzuen ekitaldien artean zein da gehien gustatzen zaizuna?

Santa Zezilia eguneko kontzertua izaten da urteko ekitaldirik bereziena, eta aurtengoa are bereziagoa izango da niretzat. Beti prestatzen dugu zerbait berezia, mimo eta ilusio bereziarekin prestatzen dugu urtero kontzertua eta aurten ere egongo da sorpresaren bat. San Bartolome Eguna ere polita izaten da, plazan, aire librean, opor giroan...

### ◆ Beteranoak eta gazteak zaudete Udal Musika Bandan. Nolako harremana duzue?

Elgoibarko Musika Bandak daukan onenatarikoa gure arteko harremana da. Adinekoak eta gazteak oso ondo konpontzen gara, lagun giroa da nagusi, eta horrek laguntzen dio bandari duen mailari eusten. Elgoibarko Udal Musika Bandak kalitate handia dauka, eta hein handi batean gure arteko harremanari esker da.



Elgoibarko dultzaineroak San Frantzisko kalean.



## Iban Muruak eta Maite Maiorak errekorrak ondu dituzte Karakateko igoeran

Errekorren edizioa izan da aurtengo Karakateko igoera, 2014koa izan zen bezala. Iban Murua eta Iñigo Lariz elgoibartarren arteko lehia aurreikusten zen gizonezkoetan eta halaxe izan zen arren, Muruak minutu bat atera zion Larizi tontorrean. Gainera, Muruak 45 segundotan ondu zuen Larizek zeukan errekorra, 26 minutu eta 52 segundotan osatu baitzuen igoera. Muruak proba amaieran esan zuenez, errekorrak baino poz handiagoa eman zion garaipenak. "Karakaten irabaztea oso berezia da niretzat, eta aspalditik desira



Arg.: Jokin Zubiaurre



Arg.: Fotoiosu

nuen gauza bat zen. Hona natorren aldiro izango dut go-goan garaipen hau". Amorru biziz ospatu zuen Karakaten lortzen duen estreinako garaipena. Emakumezkoetan mendi maratoiko txapelkun Maite Maiorak erakustaldia eman zuen. Lesio batetik osatzen ari bada ere, mendarorak "fresko" ikusi zuen bere burua eta igoera aparta egin zuen, 31 minutu eta 37 segundotan. Nahia Quincoesek zeukan errekorra, ia hiru minutuan ondu zuen. Bideoa, sailkapenak eta argazkiak [barren.eus](http://barren.eus) webgunean.

## Egoitz Morak bosgarren amaitu du Munduko Judo Txapelketan

Beteranoentzako Munduko Judo Txapelketan parte hartu zuen Egoitz Mora elgoibartarrak Miamin (AEB), azaroaren 19an. Sentzazio "gazi-gozoa" laga dion bosgarren postua eskuratu zuen. Gozoa txapelketa ona egin duela uste duelako, eta gazia, brontzezko domina eskura izan zuelako. Hiru borrokaldi irabazi eta bi galdu zituen Morak, eta Kallifa Oliveira judoka estatubatuararen aurka galdu zuen borrokaldian brontzezko domina izan zuen jokoan. "Txapelketa ona egin dut, baina min ematen du hirugarren posturako borrokaldia egin, domina horren gertu izan eta ezer gabe geratzeak", esan du.



## Alkortako Igoera, bihar

Bihar, azaroak 26, jokatu da Alkortako Igoera. Mendaroko Ezker Abertzaleak antolatzen du lasterketa hau, eta lasterkariak 10:30ean abiatuko dira udaletxe aurretik eta 4,7 kilometroko bidea egin beharko dute Alkorta baserri atariraino ailegatzeko. Iaz Jokin Muñoz mendarorra gailendu zen, 22:02ko denborarekin, baina Iñigo Lazkano herrikideak du errekorra (20:24). Alkortara igotzen diren guztientzat hamaietakoa egongo dela aurreratu dute antolatzaileek.

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Arratsaldez, orduka. Esperientzia handia.

☎ 654 304 337

Gauetz, ospitalean, gaixoak zaintzeko prest. ☎ 688 659 575

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 653 569 293

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 634 896 845

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago, astegunetan. Gauetz ere bai. ☎ 629 817 299

Garbiketa lanak egiteko, adinekoak zaintzeko edota sukalde laguntzaile gisa aritzeko prest nago. ☎ 632 879 419

Geriatría laguntzailea naiz. Adinekoak zainduko nituzke. Prestutasun osoa. ☎ 646 931 162

Umeak edo pertsona nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edota sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest nago. ☎ 616 457 254

Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 680 808 125

Adinekoak zaintzeko edo sukalde laguntzaile bezela lan egiteko prest nago. ☎ 677 259 560

Adinekoak eta gaixoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan. ☎ 617 571 210

Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest nago. 7:00etatik 11:00etara. ☎ 631 182 450

Umeak eta adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. 13:00etatik aurrera. ☎ 620 757 528

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere bai. ☎ 602 193 095 / 612 216 458

Garbiketa lanak egiten ditut: bulegoak, portalak, etxeak... Euskalduna. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago eta garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka, asteburuetan, edo interna moduan. Erreferentzia onak. ☎ 685 288 238

Portalak garbitzeko prest nago. Orduka. ☎ 602 490 595

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 649 044 223

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 612 242 293

**ETXEBIZITZAK.....**  
**Alokairua**

Logela bakarreko edo biko etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. ☎ 602 377 921

Etxea alokatzen dut Mendaron, erdigunean. Bi logela, igogailua, berogailu zentrala, oso argitsua, egongela-jangela oso handia. ☎ 689 781 069

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121

**GARAJEAK.....**

Garaje itxia alokatzen dut Jausorin. ☎ 943 531 131

Garaje itxia alokatzen dut Urazandin. ☎ 943 531 131

Garajea hartuko nuke alokairuan Urazandin. ☎ 609 951 243

**BESTELAKOAK.....**

Leopardo panpin txikia galdu dut zinetik irtetean, grisa eta arrosa. ☎ 686 882 162

Graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu ditut, funda eta guzi. ☎ 661 692 246

Karakate mikologia elkarteko nire bazkideza partea traspasatuko nuke. ☎ 688 605 253



I. URTEURRENA

**Sabina Bergaretxe Ardanza**

2015eko azaroaren 26an hil zen.



VI. URTEURRENA

**Maria Isabel Zabaleta Bergaretxe**

2010eko irailaren 1ean hil zen.

**Zuen oroimenak indartzen gaitu.**  
Familia



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



**Gure garajeetan, motor zale batek bi plazen artean aparkatzen du beti, marra gainean justu, eta horrek traba egiten dio ondoko garaje-jabeari. Kaltetuak esan digu besteak motorra aparkatzen duen leku hori gune komuna dela eta motorra erretiratzea exijitzeko eskatu du. Debekatu al diogu gainerakook motorra hor aparkatzea?**

Garaje jabeek eskubidea dute euren jabetzakoa den espazio hori nahi duten moduan erabiltzeko, beti ere elementu komunei kalterik edo trabarik egiten ez badiete edo beste garaje-jabeen espazioan sartzen ez badira.

Herri batzuetako udal ordenantzetan jasota dago gai hau eta zenbaitzutan debekuak ere zehazten dira. Ordenantzetan debekurik jasotzen ez bada, garaje jabe horrek ibilgailu bat baino gehiago (autoa zein motorra) aparkatu ahal izango ditu bere garajeetan, beti ere garaje barruan egiten duenak ez badu eraginik elementu komunetan edo beste baten jabetzakoetan, eta ez badu legeak gai horren inguruan dioena urratzen.

**AHOLKUA: Komunitateak erabilera hori ukatzeko baldintza hauetako bat eman behar da: komunitateko estatutuetan edo Komunitatearen Eratze Agirian debekua jasota egotea. Debekua egonda ere, komunitateak jabeakideen batzarraren gehiengo beharko luke gai horretan esku hartzeko. Bi baldintza horiek bete ezean, arazoa bi jabeen artean konpondu beharko litzateke.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749








## ZORIONAK



Zorionak, **Elene**, asteazkenean 6 urte! Muxu handi bat familiakoen partez, bereziki Jakes, Markel eta Jonen partez.



Zorionak, **Unax**, asteartean 4 urte bete zenituelako! Primean pasa genuen. Muxu bat, bereziki Malen partez.



Zorionak, **Poxpolina**, Ostegunean 5 urte bete zenituen. Muxu bat familiakoen partez.



Zorionak, **Jare**, zure bosgarren urtebetetzean, muxu bat familiakoen partez.



Zorionak, **Sara**, igandean 4 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat familiakoen eta lagunen partez.



Zorionak, **Beñat**, Santa Zezilia egunean 9 urte bete zenituelako. Jarraitu orain arte bezain jator. Muxuak denon partez.

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRE**Neko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€  
**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

# A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua  
[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

## 610 226 651



# IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta  
Odontóloga  
Astelehenetik osteguerdi  
8:00 - 22:00  
Zapartatzen  
10:00 - 14:00

## Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren  
**osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal | Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantzazio ezin hobekak. GALDETU

**IRAZABAL**  
clínica dental

Julían Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

## Abenduaren 1ean berriz zabalduko dugū!



HARATEGIA - URDAITEGIA  
**Mary**

Merkatu plaza, 42-43-44 saltokiak  
943 743 681

Baserriko txahalak

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



**VARILUX 40**

Mugarik gabeko ikusmena momentuan

**IRAULTZA BERRIA**  
**LENTE PROGRESIBOETAN**



## 25 BARIXAKUA

**19:00** 'Women in black'. Mendaroko Tratu Onen Aldeko taldeak antolatuta, Herriko Enparantzan.

## 26 ZAPATUA

**Hileko azken zapatuko feria:**

**9:00** Hileko azken zapatuko feria. Base-riretako produktuen salmenta.

**11:00** Lagun Taldeak jarriko du txosna.

**12:00** Sukaldaritza tailerra. Umeentzat, Kalebarren plazan.

**Eguerdiari,** ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

**10:00** Bigarren eskuko merkatua. Ingu-  
rumen Sailak antolatuta, Lekuederren.

**10:30** Alkortako Igoera. Herriko Enpa-  
rantzan hasiko da.

**10:30** Sorturen birfundazioko Zohardia  
ponentziaren gaineko batzarra. Kultur  
Etxeko sotoan.

## 27 DOMEKA

**9:45** Udal Musika Bandaren kalejira.

**12:30** Udal Musika Bandaren Santa Ze-  
zilia Eguneko kontzertua. Herriko Antzo-  
kian.

Egitaraua:

1. *Girl crazy* (G. Gershwin).

2. *Second suite* (G. Holst).

3. *Nuovo cinema paradiso* (E. Morri-  
cone).

4. *Viva la jota!* (P. Marquina).

5. *Hispania* (O. Navarro).

## 29 MARTITZENA

**18:00** Literatura tailerra. *Rojo y negro*.  
Consuelo Carrerekin. Haizeak antolatuta,  
Liburutegian.

**19:00 eta 21:00** *Memoriaren ganba-  
ratik* dokumentala. Herriko Antzokian.

## 30 EGUAZTENA

**19:00** EHBilduren bilera irekia. Kultur  
Etxeko hitzaldi gelan.

## 1 EGUENA

**21:00** Morkaikoren Mendi Emanaldiak.  
'Incógnita Patagonia'. Eñaut Izagirrek es-  
kainiko du, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## Zinea (Herriko antzokian)

'La chica del tren'

25 barixakua 21:30  
26 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)  
27 domeka 19:00  
28 astelehena 21:30



### ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

#### ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

##### LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

##### IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assegurances-ko; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %80tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau oparituko ditugu: Tupperware marka ospetsuko 10-ONTZI, janaria gorde eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 15,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR,  
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72

**CA** bankoa  
CREDIT AGRICOLE

**Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna**

**KALEGOEN PLAZAN**

**Azaroak 25**

**19:30** Elkarretaratzea. Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deituta.

**KIROLDEGIAN**

**Azaroak 26**

**10:00** Tailerra: Autodefentsa. Olaizaga kirol taldeak eta Kirol Patronatuak antolatuta.

**KULTUR ETXEAN**

**Azaroak 28**

**18:30** Hausnarketarako tailerra: Jabekuntzan Aurrerapausoak emanez. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Kultur Etxeko sotoan.

**Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00**

**Guardiak**

**09:00 - 22:00**

- 25 Barixakua ETXEBERRIA
- 26 Zapatua FERNANDEZ
- Goizez, GARITAONANDIA
- 27 Domeka FERNANDEZ
- 28 Astelehena YUDEGO
- 29 Martitzena ORUESAGASTI
- 30 Eguaztena BARRENETXEA
- 1 Eguena IBAÑEZ
- 2 Barixakua GARITAONANDIA

**22:00 - 00:00**

Astelehenetik domekara  
ETXEBERRIA (Elgoibar)  
Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140

**00:00 - 09:00**

IRAUNDEGI (Eibar)  
Fermin Calbeton, 19 - Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

barrena 11. EIBAR

**garajesGarcía.com**







KUPOI HONEKIN

**Negurako 8 segurtasun puntuen azterketa doan!**




www.garajesgarcia.com  
g.garcia@garajesgarcia.com

Erakutsitak: **943 820 697**  
Lan egiaz: **943 202 214**  
**943 127 271**

<p><b>7.000€</b></p>  <p><b>ACCORD 2.2 CTDI EXECUTIVA</b> Motorra: 2.2 cm3 CTDi Diesel Km: 280.000 Egoera: erabilia</p>	<p><b>6.500€</b></p>  <p><b>RENAULT CLIO BUSINESS</b> Motorra: 1.5 cm3 DCI Diesel Km: 106.000 Egoera: erabilia</p>	<p><b>6.500€</b></p>  <p><b>RENAULT CLIO VAN SOCIETE</b> Motorra: DCI cm 3 1.5 Diesel Km: 70.000 Egoera: erabilia</p>
<p><b>13.800 €</b></p>  <p><b>HONDA CR-V 2.2 iDTEC COMFORT</b> Motorra: 2.2 cm3 iDTEC Diesel Km: 220.000 Egoera: erabilia</p>	<p><b>11.500€</b></p>  <p><b>PEUGEOT 207 + 1.4 HDi 68CV FAP</b> Motorra: 1.6 cm3 VTI Gasolina Km: 115.000 Egoera: erabilia</p>	<p><b>25.500 €</b></p>  <p><b>HONDA CRV ELEGANCE 2.2i-CTDi</b> Motorra: 2.2 cm3 i-CTDi Diesel Km: 100.000 Egoera: erabilia</p>

**Osasun gida**  
**Osasun gida**  
**Osasun gida**  
**Osasun gida**  
**Osasun gida**  
**Osasun gida**



**hartz klinika**  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratua eta  
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalra, 13  
943 740 191 / 607 963 628  
www.fisio-mas.com  
RPS 171/10



Garazi Sampedro Arando  
RPS 169/15

**ERROSARIO**  
ERROZIO, 7  
Elgoibar  
943 743 679

HAGIN KLINIKA

RPS 271/12



**ainhoa**  
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

**federópticos**



**ikus**  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734



**aldaz**  
hartz klinikak  
RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

RPS 183/12



**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192





Eire Vila

## Mikel Olaizola



A uzoak ez zuen ematen itsaso zabalera, ez eta baso itsu edo lorategi zainduetara ere. Goizero leihoan sukaldeko aza eta heze usaina itsatsia beiran lurrunaren forman; eta haran estu hartan gorantz eraikitako hormigoizko etxe maiztuak ikusgai. Ez zen

amestutako lekua udazken hura.

Baina ostentazio handirik gabe bizita ere, bagenuen ezer; eta jabetzea gabetzearen beldurraren bezpera da. Lunpen haren erdian, inguratuta geunden; Tomasek ez zuen nahi inork eremua igarotzerik, Luisak ikaraz jartzen zuen begia behatxuloan itxura eskaseko bandiduen esperoan, Ramonek eskopeta prest leiho erztean.

Bekaitzez begiratzen ziguten. Ez genekien oso ongi zergatik... Gorroto sustraitu bat zen, bagenuelako lur zati bat geure-

geurea, auzo osoak desiratua. Horrek kondenatu gintuen txarrantetan bizitzera, ikararen mugetan harrapatuta. Ezin asmatu zer dela-eta halako sua zerbitzatu nahi genituen herritar haien begietan; ongia ezartzeko baino ez izanik iparraldeko lur busti haietan.

Gogorra da maitatua ez izatea. Rosak hortzak estutzen zituen indartsu, oiak gorrituta amorruez. *Alde Hemendik* oihuak entzuten ziren noizbehinka seme-alaben logelatik, eta haurrei belarriak esaltzen zizkien mina ezkutatzeko aldera. *Txakurrak!* bestela, kaletik hesitutako bizitoki hartaraino.

Ezin jakin nola, sotoko baineratik eta poltsaren barrutik nekez iristen baitzen minez urratutako garrasirik han goraino. Lurpetik ito antzean ihes egindako aiene apalak gehienez ere. Halakotan telebistaren bolumena altxatzen zuen Ricardok, trikornioa eta pistola egongelako mahai gainean. Jendaila hark ezin zion garagardoa eta futbola mikaztu. Falta zena, ordu libreetan ere lana buruan!

*“Jabetzea gabetzearen beldurraren bezpera da”*





# ORAIN EKONOMIA

## **Ekonomia Suspertzeko Plana**

200 milioiko inbertsioa gure enpreetan 2019ra arte, gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

**200M€**  
2015 > 2019

**Industria**  
**Lehen Sektorea**  
**Gizarteratzea**  
**Kultura eta Turismoa**





Antolatzailea:

**EUSKARAK**  
**365**  
**EGUN**

Elgoibarkeko Euskarak 365 Egun taldea

Babesleak:

 **DANOBATGROUP**

 **EUSKARRA**  
**elgoibar**  
NETZELUA  
**ELGOIBARKO**  
**UDALA**